

HERNANIK kronika

2025-06-23. Astelehena
8.959 zk.
www.kronika.eus TOKIKOM

Gora San Juan, honezkeo ezkea hain gaztiak!

25 urte bete ditu gaur Kronikak. Dena prest dago festa hasteko. Kronikak eta Kantaitak botako dute txupinazoa.

Dena gidoian idatzi bezalaxe aterata ote da? Zorionez 25 urteren ondoren ez dugu 24 milioiko fidantzari buruz idatzi behar! Ospakizun eguna dugu gaurkoa, 2000ko ekainaren 23an argitaratu baitzen lehenengo aldiz Kronika.

Era berezian ospatzeko, txupinazoa botatzeaz gain, 25 urteko ibilbidearen errepasoa egin dugu gaurko alean.

'AZE JUERGAK'

Gauza batzuk ez dira denborarekin ere aldatzen. Gaur hasiko dira

ofizialki San Joanak, eta parranda ederrak egiteko aukera izango dute herritar guztiak. Konpartsak, akelarrea, txoznak, famili bazkariak... denak lotuta jarraitzen du.

30 JARDUERA... EDO GEHIAGO
San Joanetako egitaraua es-

kuartean duenak izango du gaurko jardueren berri. Edozer egiteko aukera izango da datozen egunetan; gaurkoan San Joan Sua izango da jarduera nagusia.

Jai Batzordeak prestatutako egitarauaz gain, eragileek an-

tolatutako jarduera ugari ere izango dira, txoznetan batik bat. Lehenengo alean esan bezala...

Ea Iñigo eta Anne, su etxefueguari... Pum!!
On egin.

Orriyaren urtebetetziari jarriyak

*Doberan zeuden ameslari
egiteagatik kasu
Albistegintzan murgildu ziran
Aritz, Unai ta Irazu
Xumea zena hazi egin da
urtez urte, pausuz pausu
Egunkaria herriarentzat
doan, euskeraz ta ahaltsu
Erokeria zirudienak
mende laurden bat du, aizuz!*

Asko aldatu ote naiz 25 urtetan?



Zein da Kronikak Urumea bailarari egin dion ekarpena?

A ze jende majoa beti Kronikan, gora gu ta gutarrak!



Hauek ere kontatu ditugu Kronikan

ETak betiko utzi ditu armak

Atzo arratsaldeko 19:00etan zabaldu zuen komunikatua, Berria, Gara, BBC eta The New York Timesera bidalita. Kronikak alderdi ezberdinen iritzia bilduko ditu biharko edizioan.

ETak borroka armatua betiko utzi duela jakinarazi zuen atzo, lau komunikabidetera bidalitako komunikatuan. Arratsaldeko 19:00etan jakinarazi zuten Berria, Gara, BBC eta The New York Timesek albisteak: «ETak bere jardura armatua behin-betiko amaitzea erabaki du». ETak komunikatuan adierazi du, Donostiako Nazioarteko Konferentzia garrantzi politiko haundikoa izan dela eta gehitu du, adostutako deklarazioak «gatazkaren konpon-

bide osorako osagaiak biltzen dituela, eta nazioarteko eta euskal jendartearen sektore askoren babesa duela».

Horrez gain, Espainia eta Frantziako gobernuei dei egin die elkarriretako prozesu zuzena zabalteko, gatazka-

ren ondorioei konponbidea emateko.

Erreakzioak, bihar
Hernaniko Kronikak Hernaniko ordezkari politikoek iritzia bilduko ditu biharko Kronikaren edizioan. ■

Marka da gero, ze xelebrekeria gordetzen dituen hitzaren 'jolas' honek. 25 urtetan idatzi dugu kirolaz, kulturaz, politikaz, festez, ezbeharrez eta berri pozgarriez. Idatzi dugu estetikaz, etxebizitzak berritu eta hornitzeaz, ingurumen jasangarritasunaz, ezkontzen antolaketaz, ongizate fisikoaz eta mentalaz... Eta orain, guri buruz hitz egitea dagokigunean, zer idatzi ez dakigula geratu behar al dugu ba?

Gaur beteko ditu Kronikak 25 urte. Nork esan behar zigun, 2000 urteko San Joan bezpera hartan, aurreneko 'orri' hura esku batean eta argazki kamera bestean. Milaka irudi, milioika albiste, eta horien atzean zenbaezinak diren bizipenak. Egunkari soil bat baino gehiago izan delako Kronika. Norbera saiatu dadila definitzen zer.

Baina hitzak topatzen kostata ere, 25 urteko ibilbide honek merezi zuen omenaldi xume bat, etxe barrutik. Eta horretan saiatu gara ondorengo orrialdeetan. Bildu dugu Kronikaren garapena, aurreneko ale berezi hartatik gaur egunera arte. Jaso ditugu herritarren iritziak, lantaldetik nabarmen harago doalako Kronikaren jarduna: herritarrekin batera sortu dugu Kronika bana egunero-egunero.

Sorkuntza horren laginak ere topatuko dituzue ale honetan: urte hauetan kontatu ditugun albiste potoloenak, umoreari eta izaera jolastiari askatasuna emanez egindako bihurrikeriak, edota gure komikilari taldeak 20 urtez Kronikaren kontrazalari jarri dion txispari aitortza. Eta aurpegia jarri nahi izan diogu (umoreari tiraka hori ere), Kronikan aritutako langile sorta ederrari. Ahaztuko genuen zerbait eta ahaztuko genuen norbait; beraz, gaizki eginak barkatu eta ondo eginak gogoratu.

'Txupinazoaren ordua behintzat ondo jarri!', pentsatuko zuen batek baino gehiagok. Ia Kronika bezain zaharra da txiste erraza... Ba ohartuko zineten ordurik ere ez dugula jarri portadan badaezpada, aurreneko ale hartan jarri ez zuten bezalaxe. Bazekiten zerbait hiru haiek... Baina bai, hutsik egin gabe eta puntual azalduko gara egungo lantaldeko kideak Hernaniko udaletxeko balkoira, San Joan jaiei hasiera ematera, Kronikaren ibilbidearen parte izan diren langile, kolaboratzaile, herritar, elkarte, talde, komertzio, enpresa eta udalen izenean.

Segi dezagun beste 25 urtean elkarrekin bidea urratzen.

Kronika izateaz harro gaudelako.

Kronika

Orriyaren urtebetetziari jarriyak

DOINUA: ZER BURUZBIDE BIHOTZ GABE

1. Doberan zeuden ameslariei
egiteagatik kasu
Albistegintzan murgildu ziran
Aritz, Unai ta Irazu
Xumea zena hazi egin da
urtez urte, pausuz pausu
Egunkaria herriarentzat
doan, euskeraz ta ahaltsu
Erokeria zirudienak
mende laurden bat du, aizu!

2. Denen punttua eman beharra
proiektu berri honi ta
Aniztasunak hautsiko zuen
ordura arteko tonika
Apaiz, herritar, politikari
'Don nadie' zein 'Ikonika'
Lehen eskutik zeukaten denek
parte hartzeko gonbita
Herri guztia enteratu zan
bazetorrela Kronika

3. Erreportaje, publizitate
elkarrizketa ta beste
Eduki denak bost egunetan
ezin kabitu litezke
Hargatik azkar tematu ziran
ale gehiagoren eske
'Inguru hontan ateratzeko
ba ote dago hainbeste?'
Ba ote dagon? Egunean bi
ere atera daitezke!

4. Hitzaren bidez urratu nahian
beste zenbait bide berri
Bailara baten berezko xarma
ezin ote zen igerri?
Goizuetako periyan salgai
dauzkatela hiru zerri
Astigarragan zein Ereñotzun
edo Aranon zer berri?
Bakarrarekin hasi zen eta
azkenerako bost herri

5. Urumearen bide bazterrak
herririk herri igaro
Ura aldakor suma liteke
beherago edo gorago
Aldiz bertako berrigintzaren
emana beti oparo
Konparaketan azkenerako
ondorioa argi dago:
Kronikak lotzen dula bailara
ibaiak baino gehiago

6. Gezurrak nola hedatzen diren
interesen gurarian
Adibideak zientoka daude
gure ingurumarian
Tokiko prentsak zintzotasuna
jarri behar du abian
Gezurren aurka egiten baita
errazxeago agian
Jakin ezkerro zer gertatzen dan
gure etxe atarian

7. Batek berea atera dadin
baleuka borondatea
Larramendiko bulego grisak
zabalik dauka atea
Gertutasuna baita guretzat
ezinbesteko katea
Herritik jaso ta herriari
pasa dena esatea
Trinkoagoa bihurtu dadin
gure komunitatea

8. Irautearen gakoa zein da?
Sortzen al du jakinmiña?
Kronikak duen indargunea
talde lana da, jakiña
Auzo-elkarteen intentzioa
kirol klubon eragiña
Puntu ta koma bilakatzen da
albiste iturri fiña
Nork bere kasa letua baña
denon artean egiña

9. Zein helburu du bere horretan
gure bailarako prentsak?
Ekarpen asko egin al ditu?
Astindu al ditu ertzak?
Lan egin al du argi zitezen
bertako pasarte beltzak?
Seguru gaude jaso ondoren
pasadizoak ta kexak
Sortu duela izan denaren
ondare txiki bat behintzat

10. Egungo mundu hain aldakorra
jarri da beltzenik beltzen
Eta Kronikak jarraitu nahi du
argitasuna aletzen
Hiltzen utzita urte gutxian
damuz oroitu-ez gaitezen
Zaindu dezagun altxor txiki hau
ahal denik eta artezen
Ikusi arte gure 'orriya'
beste hainbeste betetzen

Asko aldatu ote naiz 25 urtetan?

Kronikaren aurreneko alea, 2000ko ekainaren 23an

Probako bi ale kaleratu ondoren, 2000ko ekainaren 23an argitaratu zuen bere aurreneko alea Hernaniko Kronikak, ondoko hauxe. Juxtu mende berriko lehenengo San Joanak hasi ziren egunean.

Hasieratik, astean bost egunez argitaratu zen Kronika, tokiko komunikabideetan gaur egun oraindik ere ezohikoa den maiztasun eta formatuarekin: astelehen, ostegun, ostiral, larunbat eta igandeetan, A3 tamainako bi orrialde.

Handik bi urte eta erdira, 2002ko azaroaren 6tik aurrera, asteazkenetan ere kalean izan zen Kronika, astean sei egunez argitaratzeko.



Bi orrialdeko lehenengo erreportajea, txotx denboraldiari buruzkoa

Hasierako urte haietan, tarteka-tarteka lau orrialdeko aleak kaleratu zituen Kronikak, eta horietako bat da hemen gainean daukaguna, 2003ko urtarrilaren 18koa. Egun hartan argitaratu zuen bi orrialdeko aurreneko erreportajea Kronikak: txotx denboraldiaren hasierari buruzkoa, hiru urte beranduago argitaratzen hasiko zen txotxaren gehigarri bereziaren hazia.

1.000garren aletik aurrera, egunero-egunero kalean

Kronikaren ibilbidean oso mugarri garrantzitsua da 2004ko urtarrilaren 27koa. Egun hartan kaleratu zuen 1.000garren alea Kronikak, baina ez hori bakarrik. Egun horretatik aurrera, asteartez ere argitaratzen hasi zen Kronika, eta egunero-egunero kalean izan zen aurrerantzean. Lau orrialdeko ale berezia argitaratu zuen egun hartan, orrialde zentraletan nabarmenduz alearen berezitasuna.



Kronika

BERIKUTAN BERITA

7

Gaurluk, aurrera, lau orrialdeko Kronika aurkituko duzu zure klookon, jarraitu eta inguruetan eta aterik ezarritakoak, etaun arben bostak. Haverantze informazioa alabak eta zaldunak ematen dituzten bostu pautu bat emari da. Dibera Euskara Ekaritako.

Hereniko Kronika berrikoa eta diseinu berria izango ditu

HERENIKOTIK Kronika lau orrialdeko argia da gaur. Berriak, bostak eta bostak. Haverantze informazioa alabak eta zaldunak ematen dituzten bostu pautu bat emari da. Dibera Euskara Ekaritako.

Berriak Kronika 2005 urteko argitara etorri zuten. Haverantze informazioa alabak eta zaldunak ematen dituzten bostu pautu bat emari da. Dibera Euskara Ekaritako.

Haverantze informazioa alabak eta zaldunak ematen dituzten bostu pautu bat emari da.

Berriak Kronika 2005 urteko argitara etorri zuten. Haverantze informazioa alabak eta zaldunak ematen dituzten bostu pautu bat emari da. Dibera Euskara Ekaritako.

Gaur argitako Kronika lau orrialdeko argia da gaur. Berriak, bostak eta bostak. Haverantze informazioa alabak eta zaldunak ematen dituzten bostu pautu bat emari da. Dibera Euskara Ekaritako.

Urtea	Kopurua
2000	1700
2001	2200
2002	2900
2003	3200
2004	3600

**Lau orrialdekoak
asteburuetan,
eta diseinu berritua**

Bere eboluzioan beste pauso bat eman zuen Kronikak 2005ean, edukiz eta itxuraz. Urta-
rrilaren 15etik aurrera, larunbatetan eta igandee-
tan lau orrialdeko aleak argitaratu zituen astero, eduki berrie-
kin: elkarrizketak, erreportajeak, kirol tablak, komikiak... Ordura arte, larunbatetan argita-
ratu ohi zituen. Gainera, diseinua berritu zuen, bai asteburuetako ale horie-
tan, eta baita asteguneta-
ko ohiko formatuan ere.

Hernaniko kronika

www.hernanikokronika.com, @hernanikokronika

Bertso eskolaren 27 urteko
ibilbidea omenduko
dauek 1984

En Jaureki afektatu gaur txarkeko ibilbidea, antzerkierak erakutsi gaur. Esku ekin, dardak, dardak, dardak.

**Bertso Eskolaren emango
die gaue hasiera
ofiziala San Joanek**

Ciudad Realen dieko bertsoak erakutsi gaur txarkeko ibilbidea, antzerkierak erakutsi gaur. Esku ekin, dardak, dardak, dardak.

Erreparazio

- 15:00 Jaureki afektatu gaur txarkeko ibilbidea, antzerkierak erakutsi gaur. Esku ekin, dardak, dardak, dardak.
- 15:30 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 16:00 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 16:30 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 17:00 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 17:30 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 18:00 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 18:30 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 19:00 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 19:30 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 20:00 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 20:30 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 21:00 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 21:30 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 22:00 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 22:30 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 23:00 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 23:30 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984
- 24:00 Bertso Eskolaren 27 urteko ibilbidea omenduko dauek 1984

Kronika, gero eta sakonagoa eta koloretsuagoa

Lau orrialdeko Kronikak finkatu eta urtebetera, 2006ko urtarriaren, asteburuetako ale haiek zortzi orrialde izatera pasa ziren, bai larunbatetan eta bai igandeetan. Horrekin batera, ale mardulagoak ere argitaratu zituen data seinalatuetan, gai bereziak lantzeko... eta kolorea ere iritsi zen Kronikaren orrialdeetara!

San Joan egunaren bezperakoa izan zen, 2008an, Kronikak koloretan argitaratu zuen aurreneko portada.

Herritik bailarara saltoa: Urumeako Kronika

14 urtez Hernaniko Kronika izan zenak, herritik bailara eman zuen saltoa 2014an. Lehenago ere jasotzen zituena Astigarragako, Ereñotzuko, Aranoko eta Goizuetako berriak, bailarako herriek betidanik izan baitute lotura euren artean. Baina 2014ko martxotik aurrera, tuki propioa hartu zuten herri guztiek Kronikan, hiru edizioarekin: Hernaniko Kronika asteen sei egunez, Astigarragako Kronika asteazkenetan, eta Urumeako Kronika larunbatetan, 16 orrialderekin.

Aurkezpen gisa kaleratu zuen Astigarragako Kronikaren 0 alea, otsailaren 26an. Eta martxoaren 1ean argitaratu zen Urumeako Kronikaren estreinakoa. Ondokoa da aurreneko ale horren portada.

[illegible]

Urumea bailarako berri, egunero-egunero

Bailara osora saltoa eman eta bost urte exkaxera, edizio guztiak bateratu zituen Kronikak: 'Hernani-ko', 'Urumeako' eta 'Asti-garragako' markak atzean utzi, eta bailarako egunkari izatera pasa zen. Ordutik, egunero-egunero eman du bailara osoko berri Kronikak, eta egunero-egunero iritsi da bailara osoko etxeetara. Eskuinean du-zuen hau izan zen aurrene-ko edizio bateratua.

[illegible]

**Kirolei bereziki
eskainitako alea,
astearteetan**

Betidanik izan du kirolak toki nabarmena Kronikan, jendartean bezalaxe. Kirol modalitate eta talde asko dauzkagu Urumea bailaran, eta kirolzaleak zientoka. Hori horrela, 2019an kirolari bereziki eskainitako alea argitaratzen hasi zen Kronika astearteetan.

[illegible]



Zein da Kronikak Urumea bailarari egin dion ekarpena?

Kronikaren lehenengo alea argitaratu aurretik, proba moduko 0. ale batzuk prestatu zituzten erredakzioan. Horietako batean herritar esanguratsuen iritziak bildu zituzten, hedabide berriaz espero zutena jakiteko. Dagoeneko ibilbide luze xamarra egin du Kronikak, eta momentu aproposa da aurreikuspen horiek bete diren edo ez jakiteko. Garai hartan hitz egin zutenek berriro egin dute, baina kimu berriak ere badirenez, kide berriak batu dira taldera.



ELIAS MINER

Mila esker 25 urte hauetan herriko presoen aldarrikapena zabaltzeagatik. Zorionak 25 urte hauetan lanean ibili zareten guztioi.



MAIALEN LUJANBIO

Herriko berri emateak eta herriko berri izateak lotzen du herria. Hori, eta euskaraz, noski, egiten du Kronikak.



KABUKI

Euskera loratzeaz gain, Hernaniko 'saltsa arrosak' bikain landu dituzue!



IRAITZ SANTA KRUZ

Euskara etxe guztietara sartu izana eta kanpoan bizi garenontzat, herriko gora beheren berri izateko aukera.



JOXAN RUIZ

Sekulako ekarpena egin dio Kronikak herriari, txoko guztietan gertatzen denaz jakiten dugu bere bitartez. Bailararen berri izatea gauza ederra da, niretzat bereziki Aranoko berri izatea. Euskeraz ulertzeko zailtasuna dudan arren, goitiki behera irakurtzen dut egunero.



XABIER BALERDI

Hurbiltasunaren arnasa baliatuz, herritarren arteko euskara-kohesioa sustraitzen laguntzen duen egunerokoa.



MARIA AGIRRE

Zintzoki informatzeko esfortzuak egiten jarraitzeko beharra dago, are gehiago gaur egunean. Eskerrak eman nahi dizkizuet Urumea bailarako berri ematen jarraitzeagatik eta ingurunea gehiago ezagutarazteagatik.



MIKEL TOLOSA

Nire ustez gaur egun herritar askorentzat ezinbesteko informazio iturri bihurtu da Kronika. Lan ederra egiten duzue eta herriko informazioa jasotzeko beharrezkoa da!



RICARDO RAMOS

Nik ez dut euskeraz oso ondo ulertzen, baina egunero ematen diot begiratua Kronikari. Iruditzen zait beti egon zaretela herriko kiroletik, kulturatik... gertu, eta beti saltsa guztietan murgilduta. Segi dezala Kronikak urte luzez!

**ESKERRIK ASKO
BIHOTZ-BIHOTZEZ
URTE GUZTI
HAUETAN LAGUNTZA
ESKAINI DIGUZUEN
HERRITARREI. DENON
ARTEAN OSATZEN
DUGU KRONIKA!**

**LANDER IBARBURU**

Urumea bailara euskaratik begiratzeko beharrezko leiho bat da Kronika.

**ALOÑA BERAZA**

Urtero, egunero, goizero, Kronika herrigintzaren ispilu eta bizigarri da: auzokideen ahots, sortzaileen txoko eta herritarren gehiengoaren kafearen konplize bihurtu da 25 urteotan.

**AMAIA IRAZUSTABARRENA**

Kronikak kirolarien emaitzak eta ahalegiñak nabarmentzen ditu eta horrek gure kirola ezagutzera ematen du herrian. Hain ezagunak ez diren kirolean, gure kasuan, oso aberasgarria da hori.

**BEÑAT MENDIZABAL**

Herriaren zerbitzura eta herritik gertu, euskaraz. Iritzi-emaile txikienari tokia egiten, herriko kontu anitzak zabaltzen. Institutuzioez gain, herrian eragin nahi dugunoi ahotsa ematen. Segi hortan!

**GANIX URDANGARIN**

Herritik eta herriarentzat euskaraz, zer gehiago nahi degu Astigarragan? Jarrai dezala Kronikak urte askoz, orain arte bezala, informazioa zintzo eta zuzen ematen.

**AINARA OTAÑO**

Kronikak gure inguruko albisteak ekartzen dizkigu, gure herrietan gertatzen dena, gure kultura, sagardogintza eta kirola, eta beti gure hizkuntzan.

**LIERNI ZINKUNEGI**

Kronikak ekarpen handia egiten dio Astigarragari. Guztiok dugu zer kontatua eta garrantzitsua iruditzen zait herritarrok albokoak zertan dabilztan jakitea. Herri giro polita sortzen du horrek!

**ANTTON ARKA**

Kronika egunkaria tokiko komunikazio gardenaren erreferentzia da gure eskualdean. Eta astigartarrentzat eragin handiko baliabidea da gure kultura herrikoia, gizarte bizitza eta, batez ere, euskara sustatzeko eta zabaltzeko.

**FERNANDO GOIA 'POLLO'**

Goiztutantzako Kronika kriston leihoa dela esango nuke. Alde batetik guk gure herri ttiki hontan antolatzen ditugun ekintzen oihartzuna egiteko, eta aldi berean bailaren gertatzen diren ekintzetaz enteratzeko tresna garrantzitsua da.

**FELIX LOIARTE**

Ilusioa egiten du gure inguruan sortzen diren egunerokoak ezagutzeak, ilusioa egiten du euskeraz izateak, lagun artean zabaltzen diren erara zabaltzeak... Eta, nola ez, gure komunikaziorako tresna bat hor dagoela jakiteak.

**IGARATZA APEZETXEA**

Kronika bailarako herriak lotzen dituen jostorratza dela esango nuke, alde bateko eta besteko herriak elkarbanatuz eta ekintza desberdinetan parte hartzeko aukera zabalduz. 'Trabuko bidea' duzu horren adibide esanguratsuenetako bat.

**AURORA PERURENA**

Kronikak asko balio du gure zonalderako eta Aranorako, interesatzen zaizkigun albisteak bertan irakurtzen ditugulako.

**AINHOA ANSA**

Aranori, ustez 'urruti' dagoen herri txiki honi, besteetatik gertu dagoela eta inguruarekin konektatua dagoela erakustea ekarri dio. Praktiko da, gertukoa, etxekoa, elkarlanean eraikia... Bailara biltzen duen zerbait da Kronika nire ustez.

**ELI PAGOLA**

Oraindik ere, bailaren intereseko diren kontuen berri izan eta zabaltzeko modu popular eta eraginkorrenetakoa da, papera berezikiki.

**UNAI ERROITZENE**

Ereñotzuri, Hernanira nahiz Urumea bailarara begirako erakusleio bat eskaini dio Kronikak, ikusgarritasuna eman dio. Auzo mailan ere komunikaziorako tresna baliagarria izan da eta horrek komunitatea sendotzeko balio izan du.

**MARTXELI KANFLANKA**

Oso interesgarria da Urumea bailarako albisteak irakurri ahal izatea. Gainera, eskelen berri ere izaten dugu Kronikaren bidez, gure lagun eta ezagunei agur bat emateko. Beraz, segi horrela lanean urte askoan!

A ze jende majoa beti Kronikan, gora gu ta gutarrak!

Tira, ezin gara kejavu! Oso gauza politak esan dizkiguzue urte hauetan guztietan, herritarron babesa sentitu dugu uneoro, eta horri esker egin dugu beti aurrera. Baina guk ere, normalean hain azal gogorrekoak garen hauek, hartu behar genuen tartetxo bat elkarri hitz polit batzuk eskaintzeko. Ba bai, lantalde ederrak izan ditugu beti Kronikan. Haserretu gara? Bai horixe! Galdetzea ere... A ze eztabaidak bileretan! Baina jakin dugu beti kontu bakoitzari bere tokia ematen, ezta? Nola aguantatu behar genuen elkar bestela! Eta lana gogotik egitea tokatuta ere, ederki pasa dugu elkarrekin! Zenbat bizipen, anekdota, xelebrekeria, ospakizun, sekretu...



Ederrak egitea tokatu zaigu urte hauetan, galdeiozue Eñauti bestela...



Bai, hark ileapaindegitik pasa beharko zuen estetikaren ale berezia prestatzeko. Baina lotsa ederra pasatzekoa izan zen, udako oporraldiari buruzkoa prestatu genueneko ere. Ene! Plazaren erdian, kotxean pirautekoa, maletak, sonbrilla eta beste hamaika trasto kargatuta, lau argazki egiteko... Eta denak begira, noski! Baina ederki pasa genuen, ze arrai!



Kronikaren aldeko sega desafioa ere egin genuen, pentsa!



Baita bulegoko zutabeei eutsi ere! Edo auskalo ze demontretan ari ginen hemen...



Total, azkeneko beti diruz estu eta larri ibiltzeko. Bai hoixe, diru-kontuei begira parre egin behar, negar ez egiteagatik...



Urtebetetzeak beti izan dira sakratuak Kronikan, nahiz eta nibelak ederki egin duen behera. A ze urdalazpikoa, Txabola!



Baina tira, hamaiketako goxorik ez da sekula falta izaten!



Eta zer esan laneko afariei buruz! Ba tarteka komeni dela bulegoko 'seriotasuna' uztea, ezta?



Paperak, ordenagailuak eta bestelakoak utzita, bulegotik kanpo ere elkarrekin ondo pasatzeko tarte horiek...



Kronikak 10 urte bete zituenean egin genuen argazki hau, langileekin, izandakoekin, kolaboratzaileekin... Jende asko? Ba majo haunditu da Kronikako familia ordutik!

Hauek ere kontatu ditugu Kronikan

Gauza jakina da 25 urtek askorako ematen dutela. Gure inguruan ere gauza pila bat gertatu dira, eta guztiak kontatzeko prest egon da beti Kronika. Egunerokotasuneko kontuez gain, zenbait albiste esanguratsu ere argitaratu ditugu gure aleetan. Hemen horietako batzuk!

1- ETAK betiko utzi ditu armak. 2011ko urriaren 21a.

2- Pandemia. 2020ko martxoaren 16a.

3- Astigarragaren hazkundera. 2022ko abenduaren 3a.

4- Uholdeak. 2011ko azaroaren 7a.

5- Maialen Lujanbio TXAPELDUN! 2009ko abenduaren 14a.

6- Hernani Ohorezko Mailara. 2012ko apirilaren 29a.

5



6



Zutik: Boli, Javi Etxebe, Egurra, Peltz, Uga, Arkaitz, Olano, Apo, Nadia, Guti, Pototo, Diana, Saso, Manex, Yago, Auri eta Genua. Belauniko: Iraltz, Gazta, Oler, Xabo, Peña, Jon Zu, Ramuntxo, Mik Mik, Apeze, Inaki Otxoto, David, Jon Otxoto, Manex eta Jokin.

Kronikak Ernaniko euskera ibilliko du emendikan aurrera

Doberako zuzendaritzak ala erabakita, biartikan aurrera Kronikak Ernaniko euskera ibilliko du notizi batzuk idazteko. Udaleko ta elizako notiziyak euskera batuan idatziko dira.

DOBERA Euskara Elkarteko zuzendaritzak ala erabaki du, ta biartik aurrera Kronikako notizi batzuk (geyena) Ernaniko euskeran idatziko dittu Kronikak. Oraingoz proba moduan egingo da sayakera, ta jendiak iritziya eman aal izango du, Doberako web orri berrin: www.dobera.com. Doberak ernaniarran artian egin dun azterketan ondoriyua izan da oi: "Ernaniko erritarrak nayo due orain ibiltzen dan euskera baño ernaniarragua ittia". Ernaniko euskeran idatziko da, baño Ernaniko euskera jasua erabiliz, gipuzkera estandarretik bertara xamarrekua, alegiya. Alare, euskalkiyak erabiltzeko modu ausartagua ibilli nai luke Kronikak, ta fonetikari ere garrantziya eman diyo, au da: 'y', 'tt', 'll', ta abar ibilliko dira. Atta Kardaberazen testutan oinarritzen ai da Dobera, euskera estilua zeazteko.

Berritzaillia izan nai luken sayakera

Buru auste aundik eman dittuen erabakiya izan da ondokua, baño Doberak aurrera ittia erabaki du sayakera berritzalle onekin, geyen bat irakurliak eskatu dutelako. Berritzaillia izango da bereizgarri fonetikuak idatzira eramatia, ala nola, epentesiya 'y', 'a' bokalaren aurretik 'e' eta 'o'-ren asimilaziya (etxia, astua...) eta abar luze bat. Aditzaren kasuan, Ernaniko bereizgarritan oñarritutako aditzak erabilliko dira: degu, do, ziyozun, diyozka...

Hernaniko Udalaren bandua karlistada garaiko erriko gauzan salmentan baliyo ezaz

Erri onetaco Ayuntamientoaren partetic aditzera ematen dizutet Diputacioac daucala daclaratuba, Carlisten demboran eguintaco ventac erriyen gauzenac, Dimobla nuluac, eta motivo onegatic izanici erriyarenac baso, larre, eta mendi, orain sei urte zitubenac, ez dijuala inor ayetara, egurric eta dañuric eguitera; bada juaten danaren contra, artuco dirala providenciac. Yguualmente aditzera ematen dizutet, guarda campuarentzaco lurren contribuiçaren bigarren plazo, urte onetacoa ipiñiya, arquitezen dala, eta acudi dezarutela pagatzera Septiembre guztian beñ.

"Erri onetaco Ayuntamientoaren partetic aditzera ematen dizutet Diputacioac daucala daclaratuba, Carlisten demboran eguintaco ventac erriyen gauzenac, diradela nuluac, eta motivo onegatic izanici erriyarenac baso, larre, eta mendi, orain sei urte zitubenac, ez dijuala inor ayetara, egurric eta dañuric eguitera, bada juaten danaren contra, artuco dirala providenciac.

Yguualmente aditzera ematen dizutet, guarda campuarentzaco lurren contribuiçaren bigarren plazo, urte onetacoa ipiñiya, arquitezen dala, eta acudi dezarutela pagatzera Septiembre guztian beñ.

1839 urtian erritarrak idazten zitzen Ernaniko euskera ibiltzen zuen Udalak ere, ta Doberantzat interesantia da estilo oi errekuperatzia. Goiko testua billatu nai dunak:

Archivo Municipal de Hernani. Fondo Municipal. Histórico. Relaciones del Ayuntamiento. Relaciones con las autoridades militares. Guerras y sucesos políticos. E/5/II/7/1

Gauzak ondo itte aldera, azterketa sakon bat jarri du martxan Doberak, Ernaniko izkuntza, itzak ta abar ateratzeko. Bere iritziya eman eo aportaziyauek ein nai dittunak ere bau aukera Doberako web orrin, eo Dobera eo Kronikatik pasa litteke (Larramendi 11).

Erdi eta erdi

Oaundik esperimentala da ernaniarrez idazteko egitasmo au eta zenbait notizi bakarrik

idatziko dira gipuzkera itxin (gaurko Kronikan ere zenbait notizi bakarrik idatziko dira ernaniarrez). Doberak erabaki du Udaleko, Eusko Jaurlaritzako eta Diputaziyaoko notiziyak, eta elizatik datozenak euskera batun idatzia eta erriko talderen batek erabakiko balu bere notiziyak ere batuan idatzia nayo dula, Doberak banan bana aztertuko dittu eskariyak. Jasota bezela atalean idazten duenaren irizpidia errespetatuko da. ||

ARTUTAKO ZENBAIT ERABAKI

Y - Ondoko itzetan erabilliko da beti y: alegiya, frontoya, periya. Gañontzeko itzekiñ, aldaketa progresibua izango da.

P - Emendik aurrera idatziko dira beti p-rekiñ: periya, parmaziya ta kapia. Gañontzeko itzekiñ, aldaketa progresibua izango da.

Da, de, do, du Ernaniko bereizgarri - Da ta du euskera batuan bezelaxe ibilliko dira. de: daude. txartelak salgai de... do: dago. bidia itxiya do...

A - Itz bukaeratan. Emendikan aurrera idatziko da beti: ura be-rua, lanbata goiza...

O - Auzuei biar dan garrantziya emango zaye. Iñatzun 'o' izkia-rekiñ arau bereziya erabilliko da. Adibidiak: kato, soño, doño, putzo...

TU - Ernanin joera dago euskerazko betiko aditzei -tu jartzeko, ta Kronikak erabilli egingo du: izandu, egundu... ta Iñatzuko kasuan, baita: eukittu dittut, jakindu det...

Aditza+a (ez +ta) Ermani ta inguruko bereizgarri dira baita ere, 'itxiya, jasua, botia...', bezelako aditzak ta ez 'itxita, jasota, botata...'. Orregatik, emendik aurrera Kronikako Jasota Bezala atala izango da: Jasua Bezala

Lenengo pertsonan marka aditz bukaeratan, -t biarrian -da:

zait: zaida
dit: dida
zaizkit: zaizkida

NAZU - Nazu aditzaren kasua bereziya da Ernanin. Milla buru auste ibillita gero, Doberak erabaki du nai dan tokin eta nai danian ibiltzia nazu: *esan nazu...*

Izaera jolastiak ez du etenik izan Kronikan

Kronikako idazkiek betidanik izan dute ahozotasunarekin lotura zuzena. Ez estiloagatik bakarrik, baita bixitasunagatik ere. Gainera, eduki jolastiak argitaratzeko joera haundia izan da, abenduaren 28ko inuxentadak tarteko.

URUMEA UMOREA

Ezkiei eta astoei egindako elkarriizketak, argazki oin jostariak, abenduarek 28ko inuxentadak, erritmo biziko kronikak... Informatzeko tresna izan da Kronika 25 urte hauetan, baina jolasera-ko gogoak beti izan du tartetxo bat erredakzioan. Gai eta egoera guztiak umorerako aproposak ez direla jakinda, egun bereziak baliatu ditu Kronikak jolaserako.

Jarduera asko egiten diren bailara da gurea, eta festarako gogoz egoten da jendea. Festeak, adibidez, ahalbidetzen dute originaltasuna txertatzea testuetan, eta horixe egin zuten 2000ko ekainaren 30ean, Tilosetako ezki bat elkarriizketatuta. Orrialde honetan bertan ikus daiteke 'Goatze al haiz?' partikular bat, berriro hitz egin baitugu taldeko bozeramailearekin.

Umoreak, ordeak, gaizkiulertuak ere ekartzen ditu tarteka. Abenduaren 28an argitaratuta-

ko inuxentadek dei asko eragin dituzte, azalpenak eskatzeko edo iritzia emateko. Herritarren gogoan iltzatuta geratu dira batzuk; otsoarena eta Goizuetako bidearena, esaterako. Hala ere, guztietan bat aukeratzekotan, 2006an argitaratutakoa da kutunena, aurreko orrialdean dagoen testua: 'Kronikak Ernaniko euskera ibilliko du emendikan aurrera'. Kasu hau berezia izan zen; normalean inuxentadak sinesten dituenak egunean bertan deitzen du kexatzeko, baina egun bat atzeratu ziren deiak urte horretan...

- Aizuel! Ez altzenuten esan euskalkiyan idatziko zenutela hemendikan aurrea?!!

Euskalki hutsean ez, baina izaera jolastiarekin ziur jarraituko duela Kronikak. Ondo orekatzen jakin ezkeru eduki mota guztientzat baitago tartea egunkari batean! **k**

... ETA EZKI ZIMURRAK HITZEGIN DU



Ederki esan zizkigun esan beharrekoak.

ZEINEK ote dakizki Hernanin Tilosetako Ezkiek adina se-kretu? Kronikak bozeramaileari elkarriizketa egin dio, geldi-egonetik festak nola bizi diren jakiteko.

■ **Zer moduz gara ba?**
Zuek bezelaxe, zazpi eguneko mozkorrakin!

■ **Gazteak ondo portatu al dira?**
Zoragarri! Dena eman digute.

Barru-barrutik maite gaituzte bai. Zuek bai gaztiak!

■ **...Eta ligatu, bate ligatzen al dute?**

Akelarre asko; baina gero... Gainera, ez dakit, ez dakit, neri behintzat kondoirik gabe egiten didate. Bai lasai ederren egin ere, halajainena!

■ **Zer esan dituzte bankuan eseritako bi aitonok?**

San Juan bezperaz geroztik ez direla etorri kiratsik sufritu

ezinda. Laguna ere badet nik biriketako gaitzak hila!

■ **San Juanak eta gero zer?**
Basoak eta zakarrak garbitu zaizkidazue aurrena eta ikusiko det orduan! Nik ere *sirope* edo zeozer egiten hasi behar-ko det.

■ **Datorren urtean...**

Datorren urtean!? Jai-batzordeak ez badigu omenaldia guri egiten, astebeteko itzalgreba egingo diagu. **□**

... ETA EZKI ZIMURRAK HIZKETAN DARRAI

25 urte denbora asko da begira egoteko. Horrelaxe pasa du denbora Kronikako kideen ezagun zahar batek: Tilosetako Ezki Zimurrak. San Joanen atarian, bozeramaileari elkarriizketa egin dio berriro Kronikak.

HERNANI ELKARREZKITA

Duela 25 urte sekretu asko zekizkien, eta are gehiago dakizki orain. 25 urte bete behar izan ditu Kronikak sekula argitaratutako elkarriizketa onena berrirezko. Berandu, baina seguru; Tilosetako Ezki Zimurrarekin aritu gara berriro kontu kontari. Beti bezain gogor topatu dugu, ahohostorik gabe hizketan.

25 urte pasa dira Kronikak egin zizun elkarriizketatik. Ondo jarraitzen al dezu?

Zutik behintzat bai, eta ez da gu txi! Ikusten det zuek ere bizirik jarraitzen dezuela... Nik baño okerdura gehiago izango ditudue honezkerok!

'Zutik' diozu... Ezin du ba hori esan Urumea Ikastolako erai-kin zaharrak...

Egiya da, bai... Gogorra izan zan despedida, baina, egiya esan, paraje earrak geatu zaizkit orain. Gainera, 'Kulturgune' izeneko lagun berri bat etorriko omen da laister, hori letu det zuenian... Joxepa ere iritxi zan auzora duela pare bat urte, giro earra izaten degu iluntzeetan.

San Joanen aurretik harrapatu zaitugu, txukun xamar oraindik.

Etzazula pentsa! Gazte alproja hauek asteburura aurreratu dute txosnen irekiera, eta dagoeneko ziprztinduta daukat azpialda. Ea datozen egunetan



Ahohostorik gabe hitz egiten jarraitzen du Ezki Zimurrak.

inork ez didan botakarik egiten, zapata berriak estreinatze-ko asmoa daukat eta!

Badaezpada, nik ez dizut galdetuko ea egungo gazteek ligatzen duten...

Eskerrak, ze saiatu saiatzen dira, baina ez dago martxa haundirik. Sumatu dizut Unai dalako horrek baino galdera ho-

beak egingo zenizkidala...

25 urte hauetan xeoxe aldatu zaigu Hernani, e!

Bai motel, zentzu askotan gainera! Gauza batzuk asko hobetu dira 2000tik, eta beste batzuetan atzera goazela ematen du. Ikusiko degu Kronikak 50 urte betetzen dituenan zer esan dezakegun.

Jarraitu dituzte Kronikako albisteak urte hauetan?

Bai, bai, letu izan det zuen orrialdia. Ikusi det nola jua zeaten pixkanaka Urumea bailara osua hartzen. Garrantzitsua da hori, inguruko herriak lotzeko ezinbestekua baita toki-ko komunikabide bat.

Eta? Zer iruditzen zaizu egungo Kronika?

Txinparta duten albisteak gus-tatzen zaizkit neri, grazia pixkatekin idatzitakua. Azken boladan ari zeate horrelakuak argitaratzen, eutsi horri! Hori-xe da zaharraren gomendiyoa. Gainontzian, hasierako hirurek egiten zuten bezela, denei beren tartetxoa ematen segi dezue, eta hori ere pozgarriya da.

Txupinazoa bota behar degula eta, aholkurik ba al dezu guretzat?

Hara! Zuek bota behar al dezue etxatxera? Aholku errex bat emango dizuet ba: ez zaitezela ordur nahastu! **k**



GOATZE AL HAIZ...

**Oraingoan ez zion
testuaren beharrik...
Kronikako lan taldea asko
aldatu dun 25 urte hauetan!**



TELEFONO ZENBAKIAK

Taxiak 943 55 00 93 (Her.), 622 222 343 (Asti.), 948 51 40 37-948 51 40 19 (Goi.)
Udaltzaingoa 943 24 89 00 (Her.) 943 33 52 30-699 487 587 (Asti.) **Hernaniko HHZ** 943

33 70 00 **Autobusak** Lurraldebus: 900 300

340, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 51 40 37
Jokalaritza-alkoholiko anonimoak 943 33 11 03
Ambulatorioak 943 00 66 66-900 20 30 50 (Her.), 943 33 56 44 (Asti.), 948 51 08 00 (Goi.)

FARMAZIAK

Egunez CASTILLA Urbieta, 7 (Hernani) 943 552941z **Gauzez** ETXEBESTE Elcano, 9 (Hernani) 943 552087
Goizueta Nagusia, 64 948 51 43 53

EGURALDIA (euskalmet)

GAUR Zeruia lainotuta egongo da goizean, eta euri poka bat egin dezake, baina arratsalderako ostarteak nagusitzen joango dira. Egunaren bukaeran zaparrada trumoiatsuak bota ditzake. Iparr-ekialdeko haizea ibiliko da, eta tenperaturan ez da aldaketa handirik izango. **Min.18° / Max.24°**

BIHAR Goiza lasaia izango da, eta laino finak besterik ez dira agertuko. Baina arratsalderatik aurrera nahasi egingo da giroa, eta zaparradak botako ditu, baita trumoi-ekaitza ere. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da, eta tenperatura gora egingo du. **Min.18° / Max.29°**

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Lan-taldea:
M. Adarraga, A. Arbelaiz,
O. Egaña, I. Goñi, B.
Los Arcos, L. Murua,
M. Ramirez de Alda, A.
Rekondo, I. Santa Kruz,
eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DO BE RA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Hernani Udalak



Astigarragako Udalak



Auzo Udala



Goizueta Udalak



Arango Udalak

**DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKAKIDEAK**

Diruz lagundutako argitalpena:



Gipuzkoako Foru Aldundia

TOKIKOM





25 urte

beste horrenbeste San Joan bezpera
dozenaka langile
ehunka eztabaida
milaka ale
milioika bizipen
auskalo zenbat anekdota
xelebrekeria zenbaezinak
eta helburu bakarra:
egunero Urumea bailarako
berri ematea,
zuekin, zuen bitartez eta zuentzat,
euskeraz.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez,
urte hauetan guztietan bidelagun, irakurle,
iragarle, saltsero zein kritiko
izan zareten guztioi.

Segi dezagun elkarrekin bidea egiten.

